# OSASUNA LANA HERRIA

**Gure herriko gehiengo sozialen zerbitzura, COVID-19 aren pandemiaren eta bere ondorioei aurre egiteko ekimena**

*Una Iniciativa al servicio de las mayorías sociales de nuestro país frente a la pandemia del COVID-19 y sus consecuencias*

*www.osasunalanaherria.eus*

# OSASUNA LANA HERRIA

*Gure herriko gehiengo sozialen zerbitzura, COVID-19 aren pandemiaren eta bere ondorioei aurre egiteko ekimena*

Pasa den Martxoaren 14an espainiar gobernuak Alarma Egoera dekretatu zuen COVID-19 aren krisiaren harira. Honek behargin klasea erabateko konfinamendura eraman du, bi asteko epeetan luzatzen ari dena. Ehun produktiboak jasan lezakeen higadura tarteko, eztabaida piztu da, mutur batean langileon osasunerako eskubidea eta bestean ehun ekonomikoaren premiak ezarriz.

Krisiaren hasieran konfinamendua ez osoa izan da, era honetan arriskuan jarri delarik langile multzo handi baten osasuna, lanean jarraitu behar izan dutenena haun zuzen, nahiz eta beren lan jarduera sektore “ez estrategikoetean” burutu, beren osasuna eta gertukoena arriskuan jarriz horrela.

Gainera sektore zaurgarrienek (sektore feminizatuetako langileek, langile prekarioek, enpresa pribatu txikietako langileek eta baita autonomo txikiek ere esaterako) ezin izan dute beren osasunaren aldeko apustua egin. Osasunaren aldeko mugimendu sindikalak ere ezin izan ditu guztiz babestu sektore “ez estrategikoetako” langileak.

Martxoak 28an aldiz, berrogeialdia gogortu egin da eta sektore “ez estrategikoetako” langileak etxean geratzera behartu dituzte. Nahiz eta zerbitzu ezinbesteko eta ez ezinbestekoen arteko muga urratua izan den, neurri honek kutsaduraren kontentzioa erlatiboa posible egin du. Hala ere egoera ekonomiko eutsiezina suposatu du behargin klasearentzat.

Eskura dagoen ebidentzia zientifikoa, adituen iritzia eta eredu prediktibo matematikoak kontuan hartu arren, ez dago argi pandemiak zer nolako bilakaera izango duen. Hala ere patronala eta bankaren goseak, langileriaren geruza zabal baten prekarietate egoerak, bere lan indarra sostengu bakartzat duen behargin klaseak, edozein jendartek behar duen produktuen behar materialak eta baita Espainiako Gobernuak berak duen hizkerak datozen egun edo asteetan lanera itzulera emango dela pentsatzera eramaten gaitu. Itzulera hori hasiera batean mailakatua izango da eta

masiboa geroago. Hori guztia gertatzen den bitartean gainera behar eta material mediko, sanitario eta prebentiboak handitzen joango dira.

Gauzak horrela, patronalak, bankak eta gobernuak ez dute arazorik izan soluzio bakartzat beste behin ere murrizketak eta zor publikoa aurkezteko (aurreko krisian egin zuten bezala). Onurak eta mozkinak formulatik at beste behin ere. Hori gutxi balitz sektore batzuk gainera haratago doaz eta ez dute ezkutatzen egoera honetatik negozioa egiteko aukera. Eta bitartean gehiengoa estu eta larri, arnasa hartu ezinik. Jarrera eta nahi horiek sozialki zikinak eta politikoki onartezinak direla deritzogu.

Horregatik guztiagatik, Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten behargin eta klase herrikoien beharretara egongo den proiektu bat eraikitzeko konpromezua duen, jatorri profesional, politiko eta ideologiko ezberdinetatik gatozen talde honek COVID-19 aren pandemiaren eta honek ekarriko dituen ondorioen harira ekimen hau luzatu nahi diegu, gure Herriko agente sozial, sindikal eta politikoei.

## OSASUNA ETA LANAREN ARTEKO ERLAZIOA

Hego Euskal Heriak bere barnean mantentzen du kausa ekonomikoengatiko jendarte-bazterketa. EAEn II Foessa Txostenaren arabera (2019ko urria), jendartearen %15a, 334.000 pertsona, baztertze sozio-ekonomikoan daude. Horietatik 194.000k (%8,8ak) baztertzea era larrian pairatzen du eta 90.000 “jendarte kaleratua” da muturreko baztertzearekin. Gainera, langabeziak ezin izan du %9tik jaitsi duela 12 urtetik Nafarroan, txosten beraren arabera, jendartearen %16a; baztertze sozio-ekonomikoan dago. Horietatik 14000 “jendarte kaleratua” da muturreko baztertzearekin.

COVID-19 ak ekarri duen ekonomiaren balaztadak egoera hau okertzen du, horren adibide dira esaterako langile prekarioak, asko kontratu gabe daudenak(emakumeak gehienak gainera, zaintzan eta zerbitzu sektorean lanean dihardutenak). Hauek ez dute etekinik ateratzen sindikatu handiek enpresa handiekin eginiko hitzarmenekin, eta gainera, Lan Mutuek kudeatzen dituzten gutxieneko ingresuetatik at geratzen dira, kasu askotan oinarrizko beharrak asetzeko baliabiderik gabe geratuz..

Badirudi momentu hauetan gainera tabua dela osasuna eta lan eskubideetaz termino ez dikotomikoetan hitz egitea. Bata edo besteagatik egin behar dela hautua. Ezta urrik

eman ere, urtero eguneroko borrokan milioika langilek aldarrikatzen dute beren osasun eskubidea. Eta hau noski beren lan eskubide defendatuaz bat egiten dute, aurrera egiteko lanabes gisa ez baitute beren lan indarra besterik. Gure etxean konfinaturik egoteak epe motz batean eta gure osasunaren eremu konkretu batean bakarrik babestu gaitu gainera, baina, ez dugu ahaztu behar, konfinamendu honek ere badakartzala beste hainbat eragin gure osasunean (elikaduran, antsietatean, depresioan, egoera ekonomikoak eratorritako arazoek eragin ditzakeen inestabilitate psikologikoan,...).

Horregatik eta nahiz eta gai arantzatsua izan, aitortu eta ulertu behar dugu, Euskal Herriko milaka langile lanera itzultzeko egiten ari den eskaera, ez baitute segurtasun ekonomikorik eta egoera honek beren egoera mentala higatzen baitu (lo egin ezina, frustrazioa,...). Ezin dugu ahaztu gainera gure suizidio tasa altua dela eta gehienak egoera ekonomikoagatik eratorriak direla. Era berean aitortu eta ulertu behar ditugu beren osasunaren aldeko apustua egin duten langileen postura, pandemia honen erdian enpresa handien zerbitzari izateari ukatuz.

Era berean, jarduera ekonomikoa funtsezko sektoreetara mugatzeak, lehen aipaturiko arazo objejtiboez gain (kapitalaren gosea, behargin klasearen beharrak, jendartearen beraren luzaezintasuna,...), lanera itzultze jario etengabe bat ekarri du, estrategikoa izendatu dutena, baina ez pandemiari aurre egiteko estrategikoa, beren interes ekonomikoak defendatzeko estrategikoa baizik. Horren adibide gisa jarri dezakegu, autoentzako berogailuak egiteko enpresa baten aktibitatea. Gure ustez gauden egoeran egonda industria horren lan itzulera arnasgailuak egitera egon beharko litzateke zuzendua eta ez beren betiko aktibitatea mantentzera.

Eta hain zuzen ere emergentzia egoerak bultzatuta eta osasun-lan behar horretan kokatua dago gure proposamena.

Goian adierazi dugun bezala, gure planteamenduaren oinarria lan sektore zaurgarrienekiko konpromezutik jaiotzen da, eta azpimarratu nahi dugu osasuna beste guztiaren gainetik jartzeak, “osasunetik at” uzten dituela dagoeneko egungo ekonomia modeloak ahuldu dituenak; eta beste alde batetik, ekonomia beste guztiaren gainetik jartzeak osasun arazo larriak ekar ditzakeela, batez ere hau ez duenean behargin klaseak modu eraginkor batean zuzentzen.

## HERRI PLANA: ZORPETZEA VS FINANTZAKETA PROPIOA

Honek guztiak ekarriko duen gastu publikoaren beste aurpegia ordaintzeko diru sarreren jatorriarena izango da. Jatorri honek bi iturri baino eztitu: Zorpetzea ala zerga bidezko diru sarrera propioak garatzea.
Gure proposamenerako honako irizpideak aintzatetsi ditugu:

- **Zor publikoa epe motzeko sasi-irtenbidea da, gaurko finantzaketa zama geroratzen duena, biharko premiak hipotekatuz**. Gastu sozial oro murriztuz joateko argudio gisa balio du. Adibide gisara, Etxebizitza eta hirigintzarako gastua Euskadin, 2020ean, 2008koaren %30 gutxiago da, balore jarraian. Eusko Jaurlaritzak (tokiko administrazio eta Foru administrazioak kanpo utzita)[1] 642 milioi euroko zorrarekin hasi zuen 2008ko krisia (BPG-ren %1), 2019ko itxieran berau 9.425 milioi €koa da (BPG-aren %12,6), eta honi gehitu behar zaio 2020ko aurrekontuetan zorra beste 296,65 milioi €-an handitzea onartzen dela. Nafarroaren zor bizia 2008an 868 milioi €-an zegoen, BPG-aren %4,6, 2019ko itxieran bere zor bizia 3.297 milioi €-koa izan delarik, BPG-aren %15,7, eta 2020ko aurrekontuetan 135,66 milioi €-ko gainzorra onartu da. 2020ean Zorraren aurreikusitako gastua 929,8 milioi €-koa izango da, Industria Garapen (222 milioi €), Etxebizitza eta hirigintza (164 milioi €) edota Gizarte Ekintzarako (480 milioi €) aurrikusia dagoena baino askoz gehiago. Nafarroan kostua 242,8 milioi €-koa izango da, Enpresa eta Ekonomia Garapenerako (83,66 milioi €), Zoruaren Kudeaketa eta Etxebizitzarako (143,65 milioi €) edota Lehen Artapen eta Inklusio Sozialerako (31,83 milioi €) gastatuko den baino askoz gehiago.

- **Zergak dira sektore publikoa bideragarri eta iraunkor egiten duen irten bide bakarra.** Hego Euskal Herrian personako 34.000 €ko eta 31.400€ko BPG dugu EAE eta Nafarroan, hurrenez hurren, eta EBko zerga presioaren bataz bestekotik oso behera gaude, beraz badugu finantziazio propioari heltzeko nahikoa tarte. EBren bataz besteko zerga presio berbera bagenu (7 puntu baxuago dugu), diru bilketa BPG-aren %7 igoko litzateke, hau da, Euskadin 5.052 milioi €an eta Nafarroan 1.420 milioi €an igoko litzateke. Baina zerga guztiek eztute berdin igo behar, BEZa %12tik %21era eta PFEZa bere tarte baxuenetan %15etik %23ra igaro diren bitartean, Sozietateen zerga (ETE)

[1] Zorrari dagozkion datu guztiak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun sailaren Finantza Politika Zuzendaritzak garatuak izan dira, Gehiegizko Defizit Protokoloaren (GDP) balorazioan, eta Europar Batasunerako homogeneizatua. https://www.euskadi.eus/deuda-publica/web01-a2finan/es

%35etik %20ra igaro da Euskaldin eta %35etik %23ra ETEentzako eta %19ra mikroETEentzako, Nafarroan. Baina gauza bat da ezarpen tipoak, eta beste bat zeintzuk diren tipo errealak, orotariko "zerga opor edota hobariak" ezarri ondorengoak, hauek "Zerga gastu" Euskadin eta "Zerga mozkin" Nafarroan mozorrotzen direlarik. Hala, errealitatea zera da, Euskadin zergetan biltzen den dirutik %8,47 baino ez dela biltzen Sozietate zergaren bitartez, Nafarroan are baxuagoa delarik (%7,46). 2020ean, Euskadiren kasuan, 15.414,9 milioi €ko diru-bilketa dago aurreikusia

(errealitateak kopuru hauek aldatuko ditu), berauetatik enpresek 1.306,9 milioi € baino jarriko ez dutelarik. Nafarroan kopuru osoa 4.101,75 milioi €koa izango da, horietatik enpresek 306,83 milioi € baino jarriko ez dituztelarik, Hego Euskal Herrian sortzen den aberastasunaren ia erdia, BPGari erreparatuta, enpresek hartzen duten errealitate batean.

Haratago joanda, eta COVID-19ak eragindako konfinamenduaren erdian, hiru Foru Aldundiek eta Nafar Gobernuek zerga paradisu bilakatu dituzte haien administraziopeko lurraldeak arrisku-kapital fondoen kudeatzaileentzat, "putre-fondo" gisa ezagun direnak barne, PFEZa %50ean murriztuta (praktikan %49ko gehienezko tipotik %24ko gehienezko tipora pasatzen da). Egunotan, sare sozial zein lan mundutik galdera eta ia konsigna dena bolo-bolo dabil: Nork poltsikoratuko du langileok datorren astean zabalduko diren enpresa handietan gure zein gure senitartekoan osasuna arriskuan jarrita sortuko dugun etekina?
Kolektibitatearen eskuetan jarri behar da sortuko den ENPRESA ETEKIN GUZTIA, ehun produktiboari eusteko gure osasuna arriskuan jarriko badugu. Hausnarketa da, betikoek zuloa ez estaltzeko eskaria, eta oroz gainetik etekina lehenesten duten enpresek gizartearen etekina lehenez dezaten eskaera, une berezi honetan. Herri eskaera honek, denbora tarte zedarrituan plusbalioa zergapetzearenak, auditoria eskatuko luke eta gainera zerga oinarri ezargarrien kalkulo ereduetara egokitu beharko litzateke, beraz posible den eskuhartzea Sozietateen Zergan ematen da.

**HERRI PLANA: SALBUESPENEZKO NEURRI EKONOMIKOEN PROPOSAMENA**

Arestian aletutako guztian oinarrituz, jarduera ekonomikorako zeinahi itzulerak larrialdi egoera honetarako ezohizko neurri hauek barnebildu behar dituela deritzogu, izurritea iraungi arteko tartetzat ulertuz:

**1 . BBLET (Behin behineko Lan Erregulazio txostena) zein langabezia tarteko lanera joan ezinda geratzen den ezein herritarrek eztezala honako kopurua baino baxuagoko diru sarrerarik izan : Hilabeteko 1.400 € (pertsonako BPG-aren erdiaren halakoa) edota lanean ziharduenekoo soldataren %80a.**

2. **Lanerako "zabalduko" dituzten enprestean, aletua izan den COVID-19ak errealitatera moldatutako Lanerako Osasun eta Segurtasun neurriak zorrotz ezartzeaz gain (LSHN)**, gaixotasun kronikoak dituzten eta COVID-19a tarteko heriotz tasa altuagoetan kokatu diren giza taldeetako langileek (60 urtetik gorakoak, diabetesdunak, arnasketarekin loturiko gaixotasunak, bihotz eritasunak eta beste) behin-behineko ezgaitasun laborala eskatu ahal izango dute, izurrite arriskuak dirauen bitartean, bere soldataren %100 jasoaz, enpresak osatua .

3. **Lanerako "itxita" izango dituzten enpresetan,** baina bere jarduera jendaurrekoa ez den kasuetan, baizik eta bezeroekiko hartu-emana mailakatu, zeharkako, aurretiazko edota kontrolatua den kasuetan, langileek aho batez irekitzeko borondatea azalduko balute, **bere jarduerari berrekin ahal izango diote, beti ere LSHN-k "zabaldu" duten enpresei ezarritako baldintzat betetzen badituzte, arestian zedarritutako baldintzetan behin behineko ezgaitasun laborala eskatzeko aukera barne.**

4. Lehen puntuaren egikaritzea egokien irizten zaien euskal entitate publikoen esku geratuko da, **LANBIDEk koordinaturik eta 550 eta 140 milioi € horretarako bideratuz EAEn eta Nafarroan, hurrenez hurren.** Diru hau honako iturrietatik eratorriko litzateke:

a. 2020ko ekainean aurkeztu behar den Sozietate Zergaren urteko likidaziotik zerga horren Zerga Gastu guztiak kentzea[2]. 2020ko aurrekontuen arabera 450,92 milioi € Euskadin eta 121.66 milioi € Nafarroan lirateke. Proposamen honen egikarigarritasuna 1983ko euriteek Bizkaian sortutako gastuei aurre egiteko ezohizko zerga neurrietan dugu, berau PFEZn ezarri zelarik hainbat urtez. Gainera, Zerga Gastuak kenduta aurreikusitako diru bilketa aurrekontuetan, Sozietateen Zergagatik, 1.757,8 milioi €koa litzateke, EAEko ogasunaren diru bilketa osoaren %11,4 eta Nafar ogasunaren diru bilketa osoaren %10,44, Europa mailako gure inguruko bataz bestekotik oso urrun, oraindik ere.

b. 2020ean Nafarroan eta EAEn onartu eta gure herria zerga paradisu bilakatzen duten Foru Arauak bertan behera uztea, eta honek ekarriko duen diru bilketa (zenbatu ez dutena, baina gutxieneko aurreikuspenetan EAEn 100 milioi eta Nafarroan 20 milioi izango liratekeena) ezohizko finantzaketa honetarako erabiltzea.

**SALBUESPEN MOMENTUTIK HARATAGO**

Proposamen hau momentuko beharretara dago doitua. Hau idazten ari garen bitartean europar eta mundu mailako zorraren inguruko berriek eta hau martxan jartzeko mekanismoek aurrera dihardute. COVID-19 aren krisiari aurre egiteko hartzen den edozein erabakik ez baditu patronalaren eta bankaren mozkinak irtenbidearen ekuazioan sartzen, kontutan eduki behar dugu herrialdea hondamenera daramala eta behargin eta klase herrikoien posizioa gogor ahultzen duela.

Alderdi honek berebiziko garrantzia du, aurkeztu ditugun minimoetako neurri hauek gabe, eta batez ere, etorkizunean erasora pasatzeko benetako klase estrategia batekin osatzen ez bada, gainera datorkigun krisi ekonomiko latzaren aurrean biluzik aurkituko gara. Ez dezagun ahaztu, COVID-19 ak kapitalismoaren ziklo ekonomikoa astindu duen arren, krisi ekonomikoa ez du berak sortu, kapitalismoaren funtzionamendu propioak baizik.

Beste behin argi geratu da komunitateak, elkartasunak eta guztion ongizatearen borrokak soilik bermatu dezakeela biziraupena. Bada garaia behingoz ekonomia pertsonen zerbitzura eta herrien biziraupenera kokatzeko. Bukaerako helburua ezin da izan egungo sistemari partxe bat ipintzea, denok batera eta ausardiaz modelo berri

[2]Zorrari dagozkion datu guztiak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun sailaren Finantza Politika Zuzendaritzak garatuak izan dira, Gehiegizko Defizit Protokoloaren (GDP) balorazioan, eta Europar Batasunerako homogeneizatua. https://www.euskadi.eus/deuda-publica/web01-a2finan/es

batengatik borroka egia baizik, Tito Liviok esan zuen bezala, egoera bortitza denean eta esperantza urria, ebazpen zorrotzak dira seguruenak.

# OSASUNA LANA HERRIA

*Una Iniciativa al servicio de las mayorías sociales de nuestro país frente a la pandemia del COVID-19 y sus consecuencias*

El pasado 14 de marzo el Gobierno español declaró el Estado de Alarma a consecuencia de la crisis del COVID-19. Esto ha llevado a la clase trabajadora a un confinamiento domiciliario que va alargándose en periodos de dos semanas. Al hilo de las consecuencias que el mismo vaya a tener sobre el tejido productivo, se ha suscitado la polémica entre el derecho a la salud de los/as trabajadores/as y las necesidades del citado tejido productivo.

Al inicio de la crisis el confinamiento no ha sido absoluto, de forma que se ha puesto en peligro la salud de amplias capas de trabajadoras y trabajadores que, no desarrollando su actividad profesional en sectores esenciales, han tenido que seguir trabajando en ausencia total de medidas de prevención del contagio, con el consecuente riesgo para su salud y la de sus contextos familiares y comunitarios.

Además, aquellos sectores más vulnerables (trabajadoras y trabajadores de pequeñas empresas del ámbito privado, trabajadoras de sectores feminizados, trabajadores y trabajadoras en precario, trabajadoras y trabajadores autónomos entre otros) no han podido priorizar el derecho a la salud, mientras la movilización sindical en defensa de la salud a duras penas ha podido cubrir en aquellas áreas de actividad más protegidas, y con más derechos (en los sectores no estratégicos).

Desde el 28 de marzo se ha endurecido la cuarentena, obligando a los trabajadores y trabajadoras de servicios no esenciales a permanecer en casa. Sin duda, esta medida y a pesar de que los límites entre servicios esenciales y no esenciales han sido vulnerados por excepciones constantes,  ha permitido una contención relativa del contagio, que sin embargo ha supuesto una situación económicamente insostenible para la clase trabajadora.

A pesar de toda la evidencia científica acumulada, de la opinión de personas expertas en epidemiología y de los informes de modelos predictivos informáticos, lo cierto es que no está claro cómo va a evolucionar la pandemia. Sin embargo, la voracidad de patronal y banca, la precaria situación de grandes capas trabajadoras, cuando no de toda la clase obrera que dispone como único o principal sustento para sobrevivir de su fuerza trabajo, la imperiosa necesidad material de productos que tiene cualquier sociedad, y las propias palabras del Gobierno español, nos llevan a pensar que en las siguientes días o semanas se va a producir una nueva vuelta, primero escalonada y luego masiva al trabajo. Todo ello mientras las necesidades en material y recursos preventivos, sanitarios y médicos se van a seguir disparando.

Así las cosas, patronal, banca y gobierno no han tenido problema en presentar como los únicas realmente existentes los mismos mecanismos con los que gestionaron la última crisis y todas las anteriores: recortes y sobre todo endeudamiento. Losa beneficios en cualquier caso, fuera de la fórmula. Algunos sectores van más allá y no esconden su ansia de hacer negocio a costa de la calamidad que sufre y que va a seguir sufriendo una mayoría social que se encuentra entre la espada y la pared: entre el riesgo manifiesto a enfermar y la necesidad de trabajar. Consideramos semejantes actitudes y pretensiones socialmente rastreras y políticamente inaceptables.

Por todo ello, un grupo integrado por personas de diferente procedencia profesional, política e ideológica, pero que comparten el compromiso con el proyecto de construir un país a la medida de las clases obreras y populares que viven y trabajan en Euskal Herria brindamos a los agentes sociales, políticos y sindicales de nuestro pueblo la presente propuesta.

## LA LIGAZÓN ENTRE SALUD Y TRABAJO

Hego Euskal Herria mantiene enquistada la exclusión por causas económicas. Según el II Informe Foessa para Euskadi (octubre 2019) y Nafarroa, el 15% y el 16% de sus respectivas poblaciones está en exclusión socio-económica. Además, 194.000 en Euskadi y 38000 en Nafarroa la sufren de forma severa (el 8,8% de la población). 90.000 personas en Vascongadas y otras 14000 en Nafarroa son ya “la sociedad expulsada” con exclusión extrema. No en vano, el paro contabilizado no ha logrado bajar del 9% desde hace 12 años.

El frenazo brusco a la economía por el COVID-19 agrava esta situación, ya que las trabajadoras precarias, muchas sin contrato (servicios, cuidados a las personas; etc.) no solo no se ven protegidos por los pactos de los sindicatos con las grandes empresas,

sino que tampoco tienen garantizados, a través de las Mutuas de Trabajo (gestoras de los ERTES) ingresos económicos mínimos para las necesidades más elementales.

Parece que es tabú en estos momentos de pandemia hablar en términos no dicotómicos sobre el derecho a la salud o derecho al trabajo. Parece, de hecho, que solo cabe tratarlos como si fueran mutuamente excluyentes. Sin embargo, la realidad es que millones de trabajadores de todo el mundo, año tras año, reclaman permanentemente el derecho a la salud amenazada seriamente de forma cotidiana en sus trabajos. Y se pelean por ella desde su derecho al trabajo que es el que priorizan porque el 99% de la población solo tenemos para sobrevivir nuestro capital humano o fuerza de trabajo. Que nos lo limiten el 100% de la noche a la mañana, nos protegerá a cortísimo plazo de un evento concreto que ataca a nuestra salud, pero no de todos los riesgos serios de salud que siguen desarrollándose en el confinamiento (la subalimentación, la ansiedad, la depresión, todas las enfermedades psicológicas de rápida aparición ante la amenaza vital de pérdida total de los ingresos económicos).

Por ello aunque sea espinoso hay que reconocer que miles de trabajadores de Euskal Herria está pidiendo el derecho a poder volver al trabajo porque carecen de la más mínima seguridad económica y los están aterrorizando con “la tormenta económica que viene”, con lo que su salud psicológica se está deteriorando por días (insomnio, irritabilidad, asociabilidad, frustración), que puede derivar muy rápidamente en ansiedad y depresión aguda, sin olvidar el alto índice de suicidios que tenemos, la mayoría por causas económicas. A la vez que otros miles de trabajadores se han negado, con razón, a servir a las grandes empresas en medio de esta pandemia sin tener garantizado su derecho a la salud.

Asimismo, la restricción de la actividad económica a los sectores calificados como esenciales como correlato al confinamiento, no solo se topa con los límites objetivos anteriormente señalados (voracidad del capital, necesidad de la clase trabajadora, perentoriedad de la propia sociedad) sino que ha sido erosionada por un goteo continuo de actividad, estratégica sí pero a los intereses de grupos empresariales que han conseguido mantener su actividad y por extensión su beneficio, mientras otros sectores y con ellos sus plantillas se han visto forzados al cierre. En realidad , no la actividad no debería de ser lo estratégico, sino su orientación para el combate a la pandemia. Sin embargo el carácter estratégico de una actividad se ha establecido atendiendo a su valor añadido más que a su función social. la actividad de una misma fábrica de radiadores de coches con capacidad para producir también respiradores debería de haber sido determinada como estratégica cuando se hubiese orientado a la fabricación de respiradores y como no estratégica cuando se hubiese orientado a la fabricación de radiadores.

Es precisamente desde este estado de emergencia, que durará lo que tarde la vuelta a la "normalidad" y que desde el sector público se prevé que dure como mínimo tres meses, y desde esta necesidad de salud-trabajo se enmarca nuestra propuesta.

Como hemos dicho más arriba, nuestro planteamiento nace desde el compromiso social y ético con los sectores laborales más desfavorecidos, entendiendo que la salud por encima de todo, deja fuera de "la salud" a los ya de por sí debilitados por el propio modelo económico dual, y por otro lado la economía por encima de todo entraña riesgos serios de salud si estos no son eficazmente controlados por la propia clase trabajadora.

**PLAN PAÍS: ENDEUDAMIENTO VERSUS FINANCIACIÓN PROPIA**

La otra cara del gasto público, que todo esto va a conllevar, es el origen de los ingresos que hagan frente a dicho gasto. Este origen solamente tiene dos fuentes: endeudamiento o financiación propia a través de ingresos propios (impuestos).
Para nuestra propuesta hemos tenido en cuenta los siguientes aspectos de la realidad:

- **La Deuda Pública es una solución cortoplacista, que pasa la carga financiera de hoy a los años venideros hipotecando las necesidades del mañana.** Sirve de argumento para el recorte paulatino de todos los gastos sociales. Como ejemplo del desmonte de lo social, en Euskadi el gasto en todo Vivienda y Urbanismo en 2020 es un 30% inferior, en valores constantes, al de los Presupuestos de 2008. El Gobierno Vasco (no incluye la Administración Foral ni Local) inició la crisis de 2008 con una Deuda Pública Viva[3] de 642 millones €, un 1% del PIB vasco, al cierre de 2019 su Deuda Viva es de 9.425 millones € el 12,6% del PIB, a lo que se añade que en los Presupuestos de 2020 se autoriza un aumento de la Deuda en 296,64 millones de € añadidos. La Deuda Pública Viva de Nafarroa en 2008 era de 868 millones €, un 4,6% del PIB, al cierre de 2019 su Deuda Viva es de 3.297 millones € el 15,7% del PIB, a lo que se añade que en los Presupuestos de 2020 se autoriza un aumento de la Deuda en 135,66 millones de € añadidos. En 2020 el coste presupuestado de la Deuda será de 929,8 millones €, mucho más que todo el gasto conjunto en Desarrollo Económico e Industrial (222 millones €) Vivienda y Urbanismo (164 millones €) y Acción Social (480 millones €). En Nafarroa el coste será de 242,8 € muy superior también al gasto conjunto en Desarrollo Económico y Empresarial

[3] Todos los datos referentes a la deuda han sido elaborados directamente por la Dirección de Pontica Financiera del departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco en su valoración según el Protocolo del Déficit Excesivo (PDE) homogeneizado para la UE. https://www.euskadi.eus/deuda-publica/web01-a2finan/es

(83,66 millones €) Gestión de Suelo y Vivienda (143,65 millones €) y Atención Primaria e Inclusión Social (31,83 millones €).

- **Los impuestos es la única solución que hace sostenible y duradero el sector Público.** Hego Euskal Herria, con un PIB por persona en torno a los 34.000€ en Euskadi y de 31.400€ en Nafarroa, y una presión fiscal muy inferior a la media de la UE tiene mucho margen para utilizar la financiación propia. Si tuviésemos la misma presión media de la UE ( tenemos 7 puntos menos), la recaudación aumentaría el 7% del PIB, o sea, aumentaría en 5.052 millones € en Euskadi y 1420 millones de € en Nafarroa. Pero no todos los tipos de impuestos deben responder a este aumento, porque mientras el IVA ha pasado del 12% al 21% o el IRPF en el tramo de las rentas más bajas ha pasado del 15% al 23%, el Impuesto de Sociedades (PYMES) ha pasado del 35% al 20% en Euskadi y del 35 al 23 para las Pymes y al 19 para las micropymes en Nafarroa. Pero una cosa son los tipos de gravamen y otra son los tipos reales después de poner en marcha todo el juego de "vacaciones o bonificaciones fiscales" que se recogen y contabilizan bajo el concepto "Gastos Fiscales" en Euskadi y "Beneficios fiscales" en Nafarroa. Así, la realidad es que de cada 100 euros recaudados en impuestos en Euskadi solamente el 8,47% provienen del Impuesto de Sociedades. en nafarroa es aún más bajo, el 7,46%. En 2020 está presupuestado, en el caso de Euskadi, (la realidad cambiará estos números) una recaudación total, de 15.414,9 millones € de los que solamente 1.306,9 millones € los aportarán las empresas. En Nafarroa serán 4.101,75 millones € recaudados de los que las empresas aportarán 306,83 millones €, cuando lo cierto es que casi la mitad del PIB de Euskal Herria, o sea de la riqueza generada, la acaparan las empresas. Y si vamos más allá, en pleno confinamiento del COVID-19, las tres Diputaciones Forales y el Gobierno de Nafarroa han convertido sus respectivos territorios en un Paraíso Fiscal de facto para los gestores de fondos de capital-riesgo, en los que se incluyen los conocidos como "fondos Buitre", reduciéndoles el IRPF en un 50% ( en la práctica pasa de pagar un tipo máximo del 49% a un tipo máximo del 24%). Estos días en las redes sociales y desde el mundo laboral se repite una pregunta y casi una consigna: " ¿Quién se va a apropiar el beneficio que vamos a generar los trabajadores, con riesgo para nuestra salud y la de nuestras familias, en las grandes empresas que van a abrir la semana próxima? Se debe poner en manos de la colectividad TODO el BENEFICIO EMPRESARIAL, si es que vamos a poner en riesgo nuestra salud para mantener el tejido empresarial en pie". Es una reflexión, una petición de que no paguemos la cuenta los de siempre, y que las empresas que anteponen el beneficio por encima de todo reviertan ese beneficio a la sociedad en este momento especial. Técnicamente esta petición popular, gravar la plusvalía real de un periodo acotado, necesita casi una auditoría y además los términos habrían de ser ajustados al modelo de cálculo

de las bases imponibles fiscales, con lo cual la intervención posible se hace sobre el Impuesto de Sociedades

**PLAN PAÍS: PROPUESTA DE MEDIDAS ECONÓMICAS EXCEPCIONALES**

En base a todo lo anterior, entendemos que cualquier retorno a la actividad económica debe recoger estas medidas excepcionales para este periodo de emergencia, entendido como tal el comprendido hasta el momento que se de por extinguida la pandemia:

1 **Que ninguna persona que se vea imposibilitada de ir a trabajar, bien por ERTE o desempleo, reciba unos ingresos inferiores a la mayor de estas dos cantidades: 1.400 euros mensuales (equivalentes a la mitad del PIB per cápita vasco mensualizado) o del 80% de su salario en activo.**

2 **En las empresas "abiertas" al trabajo, además de la aplicación estricta de lo que determinen las Medidas de Seguridad e Higiene en el Trabajo (MSHT) adaptadas a la realidad del COVID-19** y que ya se han señalado, los trabajadores que sufran enfermedades crónicas (mayores de 60 años, diabetes, enfermedades respiratorias, cardiacas, etc.) que han demostrado una mayor tasa de morbi-mortalidad en combinación con el COVID-19 podrán solicitar la baja médica por Incapacidad Laboral Transitoria (ILT), mientras esté decretado el riesgo de pandemia. Recibiendo el 100% de su salario, complementado por la empresa.

3 E**n las empresas "cerradas" al trabajo**, cuya actividad no dependa directamente de público en general, sino de demanda predeterminada, y /o clientes de acceso escalonado y controlado, y que sus trabajadores de forma unánime deseen reabrir, **podrán volver a la actividad, siempre y cuando se cumplan todas y cada una de las condiciones de MSHT aplicadas a las empresas "abiertas", reconociendo a cualquiera de sus trabajadores el derecho a la ILT en las mismas condiciones que las señaladas en el punto anterior**.

4 **La materialización del punto 1 se hará por las entidades públicas vascas que se estimen más adecuadas, coordinado por LANBIDE destinando a su financiación 550 y 140 millones € respectivamente en Euskadi y Nafarroa que procederían de dos fuentes concretas:**

a) Eliminar de la liquidación anual del Impuesto de Sociedades que se debe de presentar en junio de 2020 todos los Gastos Fiscales[4] de este impuesto. Según los Presupuestos de 2020 este importe asciende a 450,92 millones de € en Euskadi y a 121,66 millones de € en Nafarroa. La factibilidad de esta propuesta radica en el antecedente de imposición de medidas tributarias excepcionales que realizó Bizkaia para financiar la Lluvias Torrenciales de 1983, y que recayó durante varios años sobre el IRPF.. Y además del hecho que quitando los Gastos Fiscales la recaudación prevista en Presupuestos del total del IS ascendería a 1.757,8 millones, solamente un 11,4% del total de recaudación de las Haciendas vascas y un 10,44% de la Hacienda Navarra, muy lejos aún de la media de cualquier país de nuestro entorno europeo.

b) Derogar inmediatamente las Normas Forales y del Gobierno de Nafarroa aprobadas en 2020 que convierten nuestro pais en un verdadero paraíso fiscal, y destinar todo el importe de la recaudación que esto supondrá (y que no han cuantificado, pero en previsiones mínimas superarán los 100 millones en el caso de la CAV y de 20 millones en el de Nafarroa) para esta financiación especial.

## MÁS ALLÁ DEL MOMENTO DE EXCEPCIÓN

Esta propuesta es ajustada al aquí y ahora. Sin embargo mientras escribimos estas líneas las noticias de mecanismos de deuda a nivel europeo y también mundial empiezan a correr como la pólvora. Cualquier mecanismo de afrontar la crisis del COVID-19 sin incluir la variable beneficios de gran patronal y banca en la ecuación es una trampa que condena a la ruina al país y que debilita seriamente las posiciones de trabajadoras y populares en el marco de la lucha de clases.

Este aspecto es realmente importante pues, sin medidas de mínimos como las propuestas que deberían ser complementadas en el medio plazo con una verdadera estrategia de ofensiva popular y de clase, lo que sigue es una crisis no provocada por el coronavirus, sino por el propio funcionamiento y lógica del sistema capitalista depredador. El COVID-19, es una accidente en medio de este ciclo económico que lo puede agravar, pero no provocar.

Ha quedado una vez más de manifiesto que solamente la comunidad, la solidaridad, el bien-común, pueden garantizar la supervivencia. Es el momento de que de una vez por todas situemos la economía al servicio de las personas y a la supervivencia de los pueblos. Para eso no se trata de "parchear" este modelo se trata de adentrarnos

[4] Todos los datos referentes a la deuda han sido elaborados directamente por la Dirección de Pontica Financiera del departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco en su valoración según el Protocolo del Déficit Excesivo (PDE) homogeneizado para la UE. https://www.euskadi.eus/deuda-publica/web01-a2finan/es

unidos y con osadía en un nuevo modelo, porque como ya afirmó Tito Livio cuando la situación es adversa y las esperanza poca, las determinaciones drásticas son las más seguras.